

Jaiotzak %5,7 murriztu ziren 2009ko hirugarren hiruhilekoan

Jaiotzen %77,3an amak 30 urte baino gehiago zituen

2009ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 5.163 jaiotza erregistratu ziren, iazko aldi berean baino %5,7 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Herrialde guztietan izan da negatiboa joera: Araban 765 haur jaio ziren, %6,7 gutxiago; Bizkaian, 2.688, %2,2 gutxiago; Gipuzkoan 1.710, %10,3 gutxiago.

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %43,7. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea kokatu zen, hau da, 35-39 urte artekoa (%28,9); 25-29ko taldea beherago geratu zen, erditzeen %15,8 ekarri baitzituen. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amaten direnak %6,9 dira, eta 40 urtez gorakoen taldean jaiotzen %4,7 gertatu da.

Bigarren eta ondorengo haurrak %6,7 gutxitu ziren, batezbestekoa baino ehuneko puntu bat gehiago

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2009ko hirugarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.967 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.792 haur (%35) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %8ra iritsi ziren. Araban (%39), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%43) baino txikiagoa izan zen, eta hori herrialde horretan baino ez zen gertatu.

2008ko hiruhileko beraren aldean bigarren eta ondorengo haurren beherakada areagokoa izan da Araban, %14,8; Gipuzkoan %9,9 jaitsi da; Bizkaian %2,1, eta hemen bakarrik jaitsi da batezbestekoaren (%6,7) azpitik.


Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %32,7 hartu zuten. Araba (%35,3) izan zen Euskal AEkoa baino ehuneko handiagoa izan zuen lurralde bakarra. Ezkongabeko emakumeak gazteago amaten dira; izan ere, %15,4 14-24 urte bitartekoak ziren; ama guztiak aintzat hartuta talde horrek %6,9 bakarrik hartzen du.

1. taula: Bizirik jaioak Euskal AEen. Taula konparatiboa.

	2009ko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2009ko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2008ko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	5.163	100,0	5.380	100,0	5.476	100,0
Araba	765	14,8	844	15,7	820	15,0
Bizkaia	2.688	52,1	2.657	49,4	2.749	50,2
Gipuzkoa	1.710	33,1	1.879	34,9	1.907	34,8
Amaren adinaren arabera	5.163	100,0	5.380	100,0	5.476	100,0
<= 24 urte	357	6,9	354	6,6	381	7,0
25 - 29 urte	817	15,8	861	16,0	856	15,6
30 - 34 urte	2.254	43,7	2.367	44,0	2.391	43,7
35 - 39 urte	1.494	28,9	1.573	29,2	1.564	28,6
>= 40 urte	241	4,7	225	4,2	284	5,2
Amaren egoera zibilaren arabera	5.163	100,0	5.380	100,0	5.476	100,0
Ezkondua	3.476	67,3	3.770	70,1	3.836	70,1
Ezkongabea	1.687	32,7	1.610	29,9	1.640	29,9
Jaiotza-hurrenkera	5.163	100,0	5.380	100,0	5.476	100,0
Lehenengoa	2.967	57,5	2.913	54,1	3.122	57,0
Bigarrena	1.792	34,7	2.029	37,7	1.948	35,6
Hirugarrena edo gehiago	404	7,8	438	8,1	406	7,4

Iturria: EUSTAT

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua (oinarria 100 = media)



Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística \(Eustat\)](#)

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

[Jaiotzen inguruko prentsa-ohar gehiago](#)